



Erraiak
Danele Sarriugarte
Elkar, 2014

Plok-plok-plok

LIBURU HONEK, kontrazalean irakur daitekeenez, “bikote haustura mingarri bat du abiapuntu”. Protagonistak barne bakarriketaren bidez bere pentsamendu eta sentimenduak okada luze batean botako dizkigu orriotara. Gero, botatakoari begiratu gero, botere harremanei buruzko hausnarketak topatuko ditugu tarteka, nola familiaren barruan, kuadrilla eta lagunekin, hala herria eta komunitatearekiko norberaren kokapenari dagozkionak. Maitasun erromantikoaren pisuari buruzkoak ere han hemenka egongo dira sakabanatuta, menpekotasun afektiboa eta sexu eta desio jolas eta borrokak. Loturak, kateak, bakardadea eta ihes egiteko beharra. Parral, Zuloa, Berlin, Denver, Beefeater, Toblerone, Nirvana edo Anari ere hor daude. Charles Bukowski ere bai, jakina.

“Hank Txinaski (euskal) emakume (gazte) a balitz?” Galdera hau izan zitekeen kritika honen izenburua, baita liburu honen haria ere. Irakurketa honek gogora ekarri dit Ean duela urte batzuk uztaileko gau batean taberna batean izandako elkarriketa bat. Nola gustatu ahal zaio Bukowski feminista bati? Nola irakurri ahal ditu feminista batek misogino baten ibilerak eta horrekin gozatu? Nire ustez liburu hau izan daiteke galdera bihurri horri

erantzuna emateko saiakera bat, (baita paragrafo honen hasieran botatakoari ere).

Iban Zalduak Uxue Apaolazaren lehen lanaren hitzaurrean zioen (buruz ari naiz) bertan irakur zitekeela zakilak loditu egiten zirela. Danele Sarriugarteren lehen lanaren hasiera aldean ordea, alua bigundu eta umeldu egiten da, eta amaierara hurbiltzean protagonistak dio gozatzen duela bere maitalearen aurpegiari begiratzeko uzkia taladratzen dionean. Kritika honek “Letrak mamituz” izenburua ere izan zezakeen. Euskal emakume idazleak azken urteotan gorputza lehen planora ekartzen ari dira eta Sarriugarteren lanak joera honi ematen dio segida. Erraiak. Bihotzari, gibelari, hesteei, aluari entzuten die protagonistak. “Gorputza da jomuga eta lanabes” irakurri ahal dugu. Mari Luz Estebanek gurerak ekarritako subjektu haragiztatua hitz egiten dio irakurleari. Egokitu zaion rol sozialaren lokarriak agerian utziz doa orritz orri narratzailea, orainaren eta oroitzapenen artean, eta kate horiek apurtu nahian urratutako azalari begira dabilenaren hotsak ditugu irakurgai. ■

Amaia Alvarez Uria





11. EDIZIOA

Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuaren azoka

P
dohainik

<http://bioterra.ficoba.org>

#Bioterra2014

ANTOLATZAILEA



FICOPA

SABESLEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euzko Legebiltzaria

kutxa



irun

ZATOZ IDEIA BERDEAK EZAGUTZERA

Ekainaren 6tik 8ra

FICOPA / Irun